ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK VI
JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO VI

# GUZTION ONDAREA, DENOK PARTE!
# Patrimonio accesible e inclusivo

**Online informazio bilera - Reunión informativa online**

**2021/04/15 - 15/04/2021** **12h** zoom

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

## 1- JARDUNALDIEN AURKEZPENA

## 2- 2020ko ONDAREAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN BALIOSPENA: Kontaiguzu ondarea!

## 3- 2021ko OEJ-ko GAIA: IDEIAK ETA IKUSPEGIAK

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

**Seigarren urtez** jarraian, **2021eko udazekenean** Ondarearen Europako Jardunaldietara batuko da Gipuzkoa.

**Ondarearen inguruan** urri aldera izaten diren **ekitaldi multzo bat** dira jardunaldiak.

Europako Kontseiluak eta **Europako Batzordeak** 1999tik ospatzen dute ekitaldi hau Europako 50 herrialdetan.

**Euskadin**, hiru **foru aldundiek** bultzatzen dituzte, **Eusko Jaurlaritzaren** laguntzarekin.

Urtero **gai bat ardatz** hartuta **ekitaldi kultural ugari** antolatzen dira **ondarearen** inguruan: bisita gidatuak, lantegiak, emanaldiak, ikuskizunak, pista jolasak, erakusketak...

European Heritage Days
Journées européennes
du patrimoine

# ZENBAKIETAN...

## 2016tik...

12.700 PARTE - HARTZAILE

319 EKITALDI

+40 HERRI

222 ERAGILE

%95 BERRIRO PARTE HARTZEKO PREST

# ZENBAKIETAN...

## Egoera zaila izan arren 2020ean...




**%84 ekitaldiak** egin ahal izan ziren

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Zer da kultur ondarea?

Herri, **gizarte edo komunitate baten identitateak adierazten** dituzten adierazpide esanguratsuenak.

**Materialak:** Monumentua, Monumentu-multzoa, eremu arkeologiko edo paleontologikoa, Lorategi historikoa, Kultura-ibilbidea, Kultura-espazioa...

**Ez materialak:** ahozko tradizioak eta adierazpideak; hizkuntza barne, kultura-ondare immaterialaren hedatzailea den aldetik, eta toponimia. Bertsolaritza, Musika, Dantza, Emanaldi tradizionalak eta oroitzapenezkoak, Usadio sozialak. Gastronomia, Kirola, Jai-ekitaldiak, Naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta usadioak, Eskulangintzari eta industriari buruzko teknikak.

**Konplexua eta anitza**

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Helburuak:

- Ondarea **pertsona guztiei zabaltzea**
- Ondarea **berdintasunez eta unibertsalki eskuratzea** sustatzea
- **Herritarrak kultur ondarearen garrantziaz sentsibilizatzea**
- **Ondarea gaztengan hurbildu** nahi duen **egitasmoa**

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Guztion arteko proiektua

**Edozein antolakundek, entitatek, elkartek edo herritarrek parte har dezake**, jarduera bat antolatuz oso **formatu desberdinetan** (ikuskizunak, antzezlanak, bisita ezohikoak, dastaketak, erakustaldiak, txangoak, bizikleta ibilaldiak...), **ondarea ezagutarazteko,** inguratzen gaituena ezagutzeko, eta, jasotako herentzia hori gozatzeko, garenak izatea eginarazten gaituena.

**Benetako protagonistak,** kultur eragile guztiak dira,**jarduera berezi hori edo horiek antolatzen animatzen direnak, alegia**

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZERGATIK PARTE HARTU?

- Zuretzat **ezinbestekoa dena partekatzeko** eta tokiko ondarearen aitorpena sustatzeko
- **Gizarte harreman berriak** errazteko eta komunitateak sortzeko.
- **Kultur eragileen komunitate aktiboan** sartzeko
- **Formatu** berriekin, ideia berriekin eta esperientzia berriekin berrikuntzak egiteko zure antolakundea hobetzen du.
- Zure proiekturako edo zentrorako **entzule berriak erakartzeko**.
- Asebetetze maila handiko egitarau bat delako

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZER ESKAINTZEN DA?

Gipuzkoako Foru Aldundiak **programa sustatzen, koordinatzen, zabaltzen eta argitaratzen du,** Arabako eta Bizkaiko aldundiekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

**Koordinazioa:** Ondarearen Europako Jardunaldien Bulego teknikoa (K6 Gestión Cultural), Parte Hartzeko Gida

**Aholkularitza:** *Iñaki Arrieta irakasleak, EHU* (Euskal Herriko Uniberstitatea), *Mondragon Unibertsitateko* ***LEINN*** **graduko** lan taldeak (egitasmoa **gazteei** hurbiltzeko asmoarekin: webinaren bidez, aholkularitza saioen bidez, difusioa kanpaina...)



# ZER ESKAINTZEN DA?

**Difusioa:**

Online: ekimenaren webgunea ([www.europako-ondarea.eus](www.europako-ondarea.eus) )

Gipuzkoa Kultura webgunea , Hedabideetan (aurkezpenaren prentsaurrekoa, prentsa oharren bidalketa astero)

Offline: katalogoa (10.000 ale)




European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# DIFUSIOA: Hedabideak

## Andoain estará presente en la quinta edición de las Jornadas Europeas del Patrimonio

Organizará visitas guiadas para explicar la Batalla de Andoain y conocer la muestra sobre el 50 aniversario del colegio Ondarreta



Mural del desapa
edificio.

MARIVI OLAN
andoain.
Martes, 15 sept

noticias de Gipuzkoa

Gipuzkoa | Reala | Cultura | Actualidad | Opinión | Deportes | Economía | Zinemaldia | Ortzadar

INCLUYE 3.000€* DE EQUIPAMIENTO
Por tiempo limitado
SOLICITA TU OFERTA

Noticias de Gipuzkoa » Cultura

## Los monstruos marinos de serie B invaden el Euskal Itsas Museoa

**EL MUSEO PROYECTA EL SÁBADO UN CICLO DE PELÍCULAS SORPRESA DE BAJO PRESUPUESTO BAJO ESTA TEMÁTICA**

- N.G. | 22.10.2020 | 00:21

DONOSTIA – Euskal Itsas Museoa será invadido por monstruos marinos este sábado. El Museo proyectará un ciclo de películas de bajo presupuesto que se desvelará al inicio de la sesión. A esta actividad, enmarcada en las Jornadas Europeas de Patrimonio, se le suma un taller de creación de fanzines el día 31.

## Ondare jardunaldietako hainbat ekintza egingo dituzte asteburuan

Ezkio, Ormaiztegi, Urretxu, Zegama, Zerain — Gizartea

Ormaiztegin, Ezkion, Urretxun, Zegaman eta Zerainen egingo dituzte ondarea eta aisialdia uztartzen dituzten ekintzak.



Besteak beste, San Adriango pasabidea ezagutzeko bisita egingo dute, asteburuan. // Ane Garmendia

2020/10/21 — Laida Goiburu

2020ko Ondarearen Europako Jardunaldien harira, hainbat ekintza antolatu dituzte Ormaiztegin, Ezkion, Urretxun, Zegaman eta Zerainen astebururako. Ostiralean Ormaiztegiko San Andres Herri Eskolan *Ez dut bakarrik jolastu nahi* tailerra egingo dute, 14:00etatik 16:00etara. Haurrek gaur egun erabiltzen dituzten jostailu eta jolasak eta aiton-amonek erabiltzen zituztenak bildu eta belaunaldien arteko tailerra antolatu dute, ondare inmaterial hori ezagutarazteko.

Larunbatean hiru ekintza desberdin egongo dira. Goizean, Zegaman, 11:00etan Aldaolako aparkalekuan hasita, San Adriango igarobidearen bilakaera ikusteko eta azken indusketen berri izateko aukera izango da. 11:30ean, aldiz, Zerainen, Herri Museora eta Larraondo zerrategi hidraulikora bisita gidatua antolatu dute. Arratsaldean, berriz, Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoko dolarean dantza ikuskizuna izango da, 17:00etan hasita. Ekintza guztietan izena ematea beharrezkoa izango da.




## Con las visitas guiadas al Casco se puso fin a las Jornadas del Patrimonio

En grupos reducidos de 10 personas, los participantes recorrieron diversas zonas de la localidad



El convento de San Agustín de la localidad fue otro de los puntos del recorrido. / MARÍA

MARÍA CORTÉS
hernani.
Miércoles, 21 octubre 2020, 11:02

# DIFUSIOA: online

**Erakundeetako sare sozialetan promozioa eta iragarkiak**

@GipuzkoaKultura (6.673 jarraitzaile)

@OndareaEuskadi (5.301jarraitzaile)

@jep_euskadi (526 jarraitzaile)




European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZEIN DA PARTE HARTZEKO PROZESUA?



# 2- 2020ko OEJen BALIOSPENA




## KONTAIGUZU ONDAREA!

Iraila - Azaroa 2020

GIPUZKOA
KULTURA

European Heritage Days
Journées européennes
du patrimoine

# KONTAIGUZU ONDAREA! Patrimonio y educación




**40** herrialde

**107** jarduera

**141** ekitaldi

**73** antolatzaile

**2700** parte-hartzaile

# KONTAIGUZU ONDAREA! Patrimonio y educación




- **%20** herri eta hiri gehiagok hartu zuten parte
- **%40** handitu zen **jarduera** eskaintza
- **%51 ekitaldi** gehiago
- **%30 antolatzaile** gehiago

# 2020ko berrikuntzak






- **Parte hartzeko gida**
- Proposamenak bidaltzeko epearen luzapena
- **Leinn** taldearen parte hartzea: aholkularitza, difusioa, bideoa...
- **Online aurkezpena,** edukiera murriztuko prentsaurrekoa

# Parte-hartzaileak

Ondorengo zerbitzu eta programak baloratu (0 gutxien, 5 gehien) - Valora los siguientes servicios y programas (siendo 0 la peor puntuación y 5 la mejor):-




Parte-hartzaileen **asebetetze-maila oso altua da;** parte hartzaile gehienek **oso nota altua ematen diete jardueraren alderdi guztiei.**

# Parte hartzaileak




**2.700 parte-hartzaile,** 2019an baino % 28 gutxiago. Kontuan izan behar da pandemiak edukierak murriztera behartu duela.

**Adin-tarteak** mantendu egin dira 2019ko datuekin alderatuta

Adin askotarikoak, batez ere **helduak.**

Gazteen ehunekoak apur bat gora egin du, % 7tik **% 10era, 20 eta 30 urte** bitarteko gazteen artean.

# Antolatzaileen iritziak 2020ean

**%100 eragileek jardunaldietan izandako esperientzia errepikatuko lukete**

**%65ek publiko ezohikoen hazkundea** nabaritzen du: **gazteak eta banakako bisitak** nabarmentzen dira

Antolatzaileen **% 73k interesatzen zaien publikoa** erakartzen du

# Antolatzaileen iritziak 2020ean

## Jardunaldietan parte hartzen jarraitzeko arrazoiak:

*“Baikorra ikusten dugulako eta presentzia bat ematen gaitu eta”*

*Es una buena oportunidad para programar eventos "no habituales", atraer otro tipo de público, etc.*

*Elkarlana sustatzen baitu*

*Gure ekitaldien berri jende gehiagori iritsi daitekeelako*

# Antolatzaileen iritziak 2020ean

## Jardunaldietako gabeziak:

Publikoa jabetu al da ekintza guztiek zuten lokarriaz, hau da, ONDAREAZ?

Presentzia txikia interneten eta sare sozialetan

Necesita más difusión en canales de edades de población alta

.

Oraindik ere erreperkutsio gehiago behar da agian, baina bizi dugun egoeran zaila hau ere.

# Antolatzaileen iritziak 2020ean

## Jardunaldien lorpenak:

- “Herri **pilo baten eskaintza** anitza produktu bakar batean biltzea.”
- “A pesar de estar viviendo una situación excepcional **hay que valorar que se hayan llevado a cabo las jornadas”**
- **“Jardueraren izena, berritzailea izatea, ondarearekin zuzenean lotua,** besteetatik desberdina”
- “En nuestro caso, nos habéis ayudado **a llegar a un perfil de usuario que no nos veía o al que no llegábamos”**
- “Habéis sido de **gran ayuda a la promoción de nuestro proyecto y nos es muy interesante”**

# 3- 2021ko OEJ-ko GAIA: IDEIAK ETA IKUSPEGIAK

## GUZTION ONDAREA, DENOK PARTE!
## PATRIMONIO ACCESIBLE E INCLUSIVO

### 2021eko GAIA: IRIGARRISTASUNA ETA INKLUSIOA

# 2021ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN HELBURUAK

- **Ondarea berdintasunez eta unibertsalki eskuratzea sustatzea**

- Ondarearen Europako jardunaldiek ondarea **pertsona guztiei zabaltzea**

- Programa osatzen duten jarduerak **askotariko entzuleekin** lotzea eta, tradizioz, ondarearen interpretazioaren **barne izan ez diren taldeekin elkarreragitea**



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Aktibitate baterako ideia bat daukazu?**

2020ean argitaratu genuen parte hartzeko gida irakurtzea gomendatzen dizugu.

Ondareko ekitaldi handi honetan parte hartzen laguntzeko hainbat informazio eta aholku irakurri ditzakezu!

Gipuzkoa kulturako webgunean kontsultatu daiteke:



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Aktibitate baterako ideia bat daukazu?**

**Zabaldu zure audientzia** eta **hurbildu zure jarduera pertsona guztie**i!

Horretarako, galdetu zure buruari:

- Nola **ezagutu** daiteke nire jarduera modu hobean?
- Ba al dago **hobeto transmititzen lagunduko didan zerbait**?
- Nire ekitaldia **inklusiboa** al da?



Iturria. Fuente: Noun project. https://thenounproject.com

Erabilgarria izan daiteke **ondarea ezagutzeko baliabideak eta modu desberdinak sortzea**, pertsona guztiek aukera izan dezaten, modu normalizatuan, kultura arloan parte hartzeko.

# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Adibidez, edukiak transmititzeko hainbat modu eskain ditzakezu**: zeinu-hizkuntza, braille idazkera, eta komunikazio oztopoak ezabatzeko irakurketa erraza....

Mezuak hobeto ulertzen laguntzeko baliabideak erabiltzea gomendatzen da, hala nola **piktogramak, objektuak, irudiak dituzten laminak eta abar.**

**Entzun parte hartzen duten kolektiboei** eta **ezagutu** aldez aurretik haiek dituzten **premiak**. Aztertu **zeintzuk diren hartzaileen interesak** eta saiatu **erantzuten.**



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Zure ekitaldia inklusiboa bada,** beste pertsona batzuengana irits daiteke eta zure jardueraren hedapena biderkatu egin daiteke; horretarako, haratago joan zaitez eta galdera hau egin zure buruari, **jar naiteke harremanetan orain arte interakziorik izan ez dudan pertsona batekin?**



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Arrakastaz antolatu al duzu dagoeneko ondarearen inguruko ekitaldirik?**

**Zergatik ez egokitu ekitaldia** pertsona guztien premietara irisgarriagoa eta inklusiboagoa izan dadin?

Zure unea izan daiteke ekitaldia diseinatzeko **irisgarritasun eta inklusibitate gakoei jarraituz: fisikoa, sentsoriala, kognitiboa ...**

**Ez dakizu nondik hasi?** Zergatik ez gonbidatu dibertsitate funtzionala duten kolektiboetako bat? Haien beharrak ezagutzea abiapuntu ona izan daiteke!



# ¿POR DÓNDE EMPEZAR? ALGUNOS CONSEJOS…

**Gizarte kolektibo** batekin ari naiz lanean nire jarduera antolatzeko. Egiten dudan proposamena pertsona **talde horrentzat zuzendutako ekitaldi bat** izan al daiteke**?**

Bai, baina Ondarearen Europako Jardunaldietako **ekitaldiak pertsona ororentzat irekita daude. Edonork parte har dezakeen jarduerak eskaintzea da helburu:** familiak, haurrak, publiko orokorra, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, gazteak…

Ondarearen Europako Jardunaldietako proposamenak **herritar guztientzako ekitaldiak dira**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro
European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Batasunak indarra dakar!**

Askotan, beste elkarte/eragile batekin elkartzeak baliagarri izan daiteke eroegia zela uste zenuen ideia hori egia bihurtzeko.

Beste **kolektibo batzuetara hurbiltzeak ezagutza ematen dizu.**



Ez dakizu nola jarri zure jarduera aniztasun funtzionala duten kolektiboen eskura? Publiko espezifiko bati zuzendutako jarduera bat antolatu nahiko zenuke, eta ez dakizu nola?

**Jarri harremanetan pertsona horiekin lan egiten duen kolektibo batekin! Aukerak mugagabeak dira**

# ZER SORTU DEZAKEGU 2021KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...



**Bisita gidatu inklusibo bat** egin, sormenaz eta ukimen-baliabideez lagunduta.



Bisitak egin **antifazak erabilita**, dibertsitate funtzionala duen eta ezagutzen duzun kolektibo baten eskutik ondarea ezagutzeko.

# ZER SORTU DEZAKEGU 2021KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...



Antolatu **topaketa gastronomiko bat zure elkartean,** hainbat herrialdetako errezeta tradizionalak partekatzeko. Nondik dator plater hau? Baliteke kolektiboren batek xehetasun guztiak eta historia ezagutzea eta s**ukaldaritza-ondare hori transmititzen laguntzea.**



**Ibilbide musikal** bat egin zure auzoan, **kantutegi tradizionala berreskuratzeko. Zergaitik ez batu auzoko nagusiak beraien jakinduria ibilbidea gidatu dezaten?**

# ZER SORTU DEZAKEGU 2021KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...



**Poesia** emanaldia, ekitaldian parte hartzen duten k**omunitate guztien hizkuntzetan errezitatzeko.**



Beste komunitate batzuk gonbidatu **kulturarteko kultur ekitaldi** bat programatzera.

# NOLA BIDALI NERE PROPOSAMENA?

**Gipuzkoa kultura webgunearen bidez**, aktibtiatearen deskribapena, argazki eta antolatzaileen logoekin.



# NOLA BIDALI NERE PROPOSAMENA?

**Proposamenak bidaltzeko formularioa** bihar aktibatuko dugu:
https://www.gipuzkoa.eus/es/web/kultura/patrimono/proyectos/jornadas/europeas

Urte honetan **argazkiak eta logoak** webgunearen bidez bidaliko dira

Ez bazaude ziur zure ekitaldia bidali duzula, edo arazoren bat duzu, bidali mezu elektroniko bat **gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus** helbidera.

# DATAK

**Aktibitate proposamenak bidaltzeko epea:** 2021/04/16 - 2021/05/24

**Proposamenak balidatzea:** 2021/05/24 - 2021/06/

**Programa osoa jendaurrean aurkeztea** : 2021/09/01

**Ondarearen Europako Jardunaldiak:** 2021/09/01 - 11/31

# MILA ESKER!
# ¡MUCHAS GRACIAS!

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# GALDERAK?

